

IRITZIA

Alberto Iriondo

ERREPORTAIA

Desagertutako

Odeón antzokia:

40 urteko historia

GEHIGARRIA

Zaharrak Berri

BERBETAN

Arnaldo Otegi,

HBko bozeramailea

KULTURA

Euskal Ihauteria

Haritz Dantzari

Taldekoen eta


Mauxitxaren eskutik

BARRREN

1998ko otsailaren 20a
VI. urtea - 226.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

Karnabaletako mozorro jaia



“Irribarrea da bi pertsonaren arteko distantziarik motzena” Victor Hugo



Otaola, 22 • Tel: 20 09 66
EIBAR




PEUGEOT

ELGO-AUTOS

Deba kalea, 14 • Tel: 74 41 96
ELGOIBAR

**ETORMOBILEk ETA ELGO-AUTOSEk
AUTO KOMERTZIALEN AUKERA BERRIA
AURKEZTEN DUTE**

BOXER




EXPERT



PARTNER





ALBERTO IRIONDO

Ehiztari ehizatua

Arazo ekologikoek betidanik kezkatu naute, baina naturarekin zerikusia duen gairen bat eztabaidatu dudanean, askotan konsekuentea ez izatea leporatu didate, eta gehien amorratzen nauena da arrazoi osoz izan dela aitortzea. Ekologismoa defendatzea ez da batere erraza, gaur egungo gizarte moderno eta “aurreratu” honetan egunean zehar egiten ditugun naturaren kontrako atentatuak kontaezinak direlako, eta ez naiz enpresa handiek egiten dituzten astakeriez hitz egiten ari, ez, egunero leku gertuetara joateko erabiltzen dugun kotxearen keaz, edo gure etxetan erabiltzen ditugun plastiko, olio eta produktu kimikoez baizik; horregatik, gure argudioak defendatzen hasi aurretik, “Mea Culpa” zintzoa entonatu beharra daukagu.

Gai honek dituen atal guztiak txoko txiki honetan kabitzen ez direnez, “kirol” bati buruzko gogoeta labur bat egin nahiko nuke: ehiza, jarduerara bat non soldadu batzuek, gerrarako arropak eta armak erabiliz, beren animaltasuna, beste animaltasun ezberdin (oso ezberdin) baten aurka aldarrikatzen duten. Hau esandakoan, seguraski, eta ihar-

despen defentsibo bezala, “denok gara antiekologikoak!”, “denok kaltetzen dugu natura!” eta antzerako gauzak entzungo ditugu (badakizue, errudunak asko badira erruduntasuna askoz jasangarriagoa da), eta guk, berriro, “Mea Culpa” entonatu behar. Baina hala ere, logika ukaezin hau ez dugu ahantzi behar: izaki batek gutxienez, bizirik jarraituko du ehiztari bat etxean geratzen den egunean; ehiztari batek, etxetik irteten den egunean, izaki

bat gutxienez hil egingo du. Biderketa simple bat besterik ez dugu egin behar kate ekologikoak sufritzen duenaz ohar tzeko. Orain, ihardespena beste alde batetik etor daiteke: “mundu honetan egiten diren basakeriak (atentatuak, torturak, gerrak, kutsadura...), eta horiengatik hiltzen diren pertsonak eta animaliak kontuan harturik, nori inporta

zaio animalia batzuen heriotza?” Eraikin batek harri txiki asko ditu, eta hemendik nirea jartzea daukat; xede xumea agian, baina zerbaitengatik hasi behar dugu, eta, harriz harri, gero eta ahalegin handiagoak eginez, gero eta harri handiagoak jarritz, ea hurrengo batean konsekuenteagoak izan gaitezkeen...

“Ekologismoa defendatzea ez da batere erraza, gaur egungo gizarte moderno eta ‘aurreratu’ honetan egunean zehar egiten ditugun naturaren kontrako atentatuak kontaezinak direlako”

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 74 41 12
Publizitatea:
☎ 74 37 04
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,

Rosa Agirregabiria

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEA

Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Ana Artetxe, Mari Karmen Elorza,

Maidar Elustondo, Aintzane Garate,

Jon Garate, Amaia Gorostiza,

Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo,

Miriam Iriondo, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Nieves Loiola,

Ongarri Zine Kluba,

Julian Segundo, Jon Suarez,

Anjel Ugarteburu, Leire Urkidi, Iban Urizar.

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
 Jaurlaritzako Kultura
 Sailak eta Foru
 Aldundiak diruz
 lagundutako
 aldizkaria.*



OTArri buruz gehiago

Azken egunotan gauza asko irakurri eta entzun izan ditut OTA dela eta ez dela. Badirudi gauzak martxan daudela eta beste ezer gertatzen ez bada, epe motzera OTA jarriko dutela Elgoibarren. Arrazoia? Batek daki. Hainbat argumentu erabili nahi dituzte Udalean bidezkoa ez den zerga berri bat jartzearen justifikazioa bilatu nahian. Baina, benetan uste al dute OTArekin herriaren erdian dauden aparkaleku arazoak konponduko direla? Bai zera! Gaizki ohituak gaudela eta erdi-erdian aparkatu nahi izaten dugula esaten dute, eta auzoak ere hor daudela. Hala ere, duela hilabete batzuk gertatutako pasadizo bat kontatuko dut: Erdigunean bizi zen pertsona batek, hainbat arrazoik behartuta, auzo batean aparkatzen zuen bere autoa. Baina egun batean, kotxean notatxo bat zegoela ikusi zuen eta bertan, hitz nahiko zatarrak erabiliz, hurrengoan toki horretan aparkatuz gero, autoa markatuko ziotela amenazu egiten zioten. Pertsona horrek, noski, ez zuen bere autoa berriz ere auzo hartan aparkatu.

Adibide bat baino ez da. Egia da herriaren aparkatzeko arazoak daudela eta astegunetan dexente larritzen dela trafikoa herriaren erdigunean. Ongi deritzot zenbait kale oinezkoentzat bakarrik izatea. Baina OTA, hau da, beste zerga bat jarri beharrean, zergatik ez dute Udaleko ordezkariak irtenbide bat bilatzen? Hain zaila al da aparkaleku berriak egokitzeke sistemaren bat pentsatzea? Hor daude Leku-Eder-eko garaje mordo bat salgai eta Udalaren esku.

Soluzioa ez da OTA jartzea. Eta herritar gehienok kontra gaudela esango nuke. Txankakuak sinadurak jaso zituen OTAren aurka eta herritar batzuk dabilta orain alegazioak aurkezten. Zerbaiteko balioko ote du?

O.E.

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KEXAK

◆ Pedro Muguruza etorbidean bizi den emakume batek honako hau jakinarazi nahi dio Udalari: “**Mala ingurua ziharo abandonauta dauala beintxatzen jata**, parkia batez ere. Ondo topatzen dot Leku-Ederren eta goiko aldeko beste lekuetan gastua eixia kurioso lagatzeko baina **Malako parkian, esaterako, egurrezko lau jarleku baino ez daoz**. Mixerabilia topatzen dot. Pedro Muguruza osuan ere ez dao jarleku bat bera ere. Batzoki ondoko parkia konpndu zabenian zemento bueltia bakarrik jarri zaben, jarlekurik ez. Ia jartzeko banku gehixo eta arbolak ipintzen ditxuen Mala aldian”.

TXALOAK

◆ Kirolzale batek deitu digu Udal Kirol Patronatua txalotzeko. Kiroldegia eta herriko kirol jardueren ardura Udalak hartu zuenetik, narbamen igartzen omen da

gauzak aldatzen eta hobetzen hasi direla. Azken hobekuntza kantxa berria izan da, alde ederra omen dago alferrik zegoen frontoiaren eta orain jarri duten kantxaren artean.

B AI, E S A N ?



Roberto Balanzategi

Osasun Zentroko medikua

Aste honetako telefono deia **Roberto Balanzategi Osasun Zentroko medikuari** egin diogu. Gobernuak martxan jarri nahi duen “**medicamentazo**” delakoari buruz lau gauza azaltzeko eskatu diogu.

- **Zer da, zehatz-mehatz, PPko gobernuak bultzatu duen “medicamentazo” delakoa?** - Neurri hau oinarrian honetan datza: orain arte ordaintzen ez ziren hainbat botika, aurrerantzean ordaindu egin beharko direla. Neurri honekin asko aurreztea lortuko du Gobernuak.

- **Sendagi eskasak diren botikei bakarrik eragingo diela esaten dute. Sendagai eskasak badira, zergatik ez dituzte zirkulaziotik erretirutzen?** - Galdera ona da egiten didazuena, nik neuk ere askotan egiten baitiot galdera bera neure buruari. Gure Osasun Zentroan ez da inolako zerrendarik iritsi ofizialki. Edonola ere, itxura batean, behar-beharrezkoak diren botikak ez dila finantziatuz aterako.

- **Nori eragingo dio batez ere, neurri honek? Gai-xo kronikoei eragingo al die?** - Garrantzia txikiko gaixotasunei eragingo dio batez ere. Gaixo kronikoei ez dute estutzeko arrazoirik, behar dituzten botika guztiak eta arreta eskainiko baitzaie orain arte bezala.

- **Ba al du abantailik neurri honek? Eta baldin baditu, norentzako abantailak dira?** - Printzipioz, neurri honen asmoa da osasunean gastatzen den dirua hobeto banatzea, hain garrantzitsuak ez diren gauzetan dirua aurreztuko litzatekeelarik. Diru horrekin beste behar batzuk asetzea da helburua, kontuan izan behar baita bizi itxaropena gero eta handiagoa dela eta gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak gero eta gehiago direla.



ERREZABAL
Taberna

Ermuaranbide, 2
Tel: 74 26 33

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak	Enbutidoak
Baserriko ogia	Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 ☎ 74 33 92

Odeón antzokia

40 urteko historia



1954. urte-

ko urtarrilaren

lean inauguratu zen

Odeón izeneko antzokia.

"Los cuentos de Hoffman" izan zen
inauguraziorako aukeratutako pelikula.

40 urte geroago, 1984 urte aldera, "Indiana
Jones"en pelikula batek eman zion azken agurra

Elgoibarren ezagutu dugun antzoki handienari.

Gaur egun etxebizitzak daude Odeón deituriko antzoki ederra altxatzen zen tokian.

Luis Santolayarekin izan gara luze berbetan Odeoiari buruz. Bere bulegoan loraindik ere zine zahar hartan bizi izandako mementuen oroigarriak ditu: sarrerak, urteetan zehar izan ziren antzerki emanaldi guztien zerrenda, pelikulak, sarreraren prezioa... Hainbat eta hainbat datu, hauts artean galdu ez direnak. Pena da, hala ere, eraikuntza botatzeko harri azpian geratzea kartelak, antzerki obretako aktoreek sinatutako argazkiak eta beste hamaika detaile txiki baina aberats.

Antzoki, zine edo dena delako eraikuntza handi baten historia lehen harria jartzen hasten den unean jaiotzen da. Duela zenbait urte, 1953. urte aldera hain justu, Antonio Santolaya zena Elgoibarren antzoki bat irekitzeko ideiarekin bueltaka hasi zen. Toki aparta ikusi zuen Antonio Arrillaga zenaren terrenoetan, Santa Ana kalean. Santolayak antzerkia izugarri maitatu zuen eta bere herrian bertan, ikuskizun ugari antolatzea amestu zuen, herritarrei antzerkia eta zinearen magia erakusteko ametsa hasi zen mamaitzen. Arrillagarekin eta Migel Gallastegi pilotaria zenarekin batera akordio batera iritsi eta obrak hasi zituzten. Hasi eta amaitu. Izan ere, 10 hilabeteko epean *Odeón* antzokia altxatu zuten eta 1954. urteko urtarrilaren lehen inaugurazio ekitaldia izan zen. Lehen pelikula, *Los cuentos de Hoffman*.

800 butaka

Odeón antzokian Estatuko antzerki talderik onenak izan ziren, zarzuelak, kontzertuak, musika emanaldiak... Herriko talde afizionatuek ere euren obrak taularatzeko aukera izan zuten. Era guztiatako ikuskizunak antolatzen zituzten eta behin baino gehiagotan bete izan ziren *Odeón* antzokiko 800 butakak. Lehen mailako kalitateko materialez eginiko antzokia zen. Eszenatoki izugarria zuen. Butaka erosoak. Pelikulak proiektatzeko punta-puntako aparatuak. Datu bat, gaur egun oraindik aire libreko zine emanaldietan *Odeón* antzoki zaharreko proiektorea erabiltzen da. Garai hartan, batez beste 7 pertsonak egiten zuten lan “*Odeón*” antzokian: zinea proiektatzeko kabinan bi fijo eta ordezkoa, hiru akomodadore, kontserjea, atezaina...

Astearteak emakumeenak

Odeoiak 40 urtean izan zituen zabalik ateak. Luis Santolayak, Antonio zenaren semeak kontatu digunez “ez zen behin ere itxi. Udako hilabeteetan ere zabalitzen genuen. Arrazoia? Batetik, herritarrei zinea ikusteko aukera eman nahi genielako udako oporretan ere. Bestetik, zinera joateko ohitura mantendu nahi genuelako”. Asteazkenetan ixten zen, atsedean egun bakarra. Ostantzean, astelehenetik ostiralera bi emanaldi izaten ziren, larunbatean hiru eta igandeetan lau. Garai hartan pelikulak lotean erosten zituzten, 20 pelikulaz osatutako loteak izaten ziren. Pelikula batzuk onak ziren, beste batzuk txarrak. Baina denei eman behar zitzairen ir-

teera eta asteko ia egun guztietan bat edo beste emititzen zuten. Astearteak bereziak izaten ziren, *Martes femina* deitzen zitzairen. Egun horretan, gizonezkoek erosten zuten sarrera bakoitzarengatik emakumezko batek doan sartzeko aukera izaten zuen. Hala ere, denborarekin hura ere kontrolatu beharra egon zen. Luisek esan digunez, “inspektorea etortzen zen eta zenbat per-tsona zeuden kontrolatzea ezinezkoa egiten zitzaigun. Horregatik, prezio sinbolikoa jarri genuen: 2 pezeta. Sarrera normalak 5 pezeta balio zituen astegunetan eta 8 pezeta jaiegunetan”. Jubilatuekin ere antzeko zerbait gertatu zen. Larunbatetan zinera doan joateko aukera izatetik prezio sibolikoa ordaintzen hasi behar izan zuten.

18 urtetik gorakoentzat

Gaur egun San Frantzisko kaleko Bankoa kokatzen den lekuan *Abdon* denda zegoen garai batean. Denda hartako eskaparetan jartzen zituzten zineko kartelerak. Pelikula guztiak klasifikatuak egoten ziren, hasi toleratuak edo adin guztiarentzat eta 18 urtetik beherakoentzako debekatuak zeuden pelikulak arte. Garai hartan, gainera, eskena lizunen irudiak izar beltz batez estaliak agertzen ziren eta zinean bertan ere hainbat irudi zentsuratu egiten ziren. Hala ere, 14-16 urte bitarteko gazte askok jakinmin handia izaten zuen debekatuak zituzten pelikulak ikustera joateko eta, ahal zutenean, nola edo hala kolatzen saiatzen ziren. Luisek gogoratzen duenez, “adin horretako mutikoen pikardia berezia izaten dute eta normala zen horrelako-



Argazkian sarrera ederra ikus daiteke. Goiko solairuan ambigua zegoen, antzokiko kafetegia.



ak gertatzea”. Ez hori bakarrik, ume askok, pelikularen atsedendian edo tarte batean kanpora atera eta zaka-rrontzitik sarrera puskatuak hartzen zituzten. Gero, etxean, pazientziaz sarre- raren bi zati ahalik eta ondoen pegatu eta sarrera erosi berria izango balitz be- zala abiatzen ziren zinera. Asko sartu izan ziren martingala horiez baliatuz, “gu konturatzen ginen baina haurrak izaten ziren eta, zer egingo zenien ba! Sartzen utzi eta kitto”.

El último cuplé eta E.T.

Odeoiko takilan hasi eta Plaza Han- dira bitarteko ilara luzeak ezagutu izan dira. Bi pelikula gogoratzen ditu berezi- ki Luis Santolayak: *El último cuplé*, Sa- ra Montielekin eta *E.T.*, Spielberg zu- zendariaren pelikularik arrakastatsue- na. Luisen esanetan, “orokorrean peli- kula espainiarrek ez zuten apenas diru sarrerarik ematen. Jendeari ez zitzaiz-

kien gehiegi gustatzen baina Sara Mon- tielenak salbuespenak ziren, batez ere *El último cuplé* pelikula. Arrakasta han- dia izan zen. Hala ere, nik ezagutu du- dan ilararik luzeenak *E.T.* pelikulak sor- tu zituen. Umeak, gazteak eta zaharrak, ikuslegoaren artean denetik zegoen eta funtzio guztietara joan zen jendea. Ho- rrelako pelikula handiei esker lortzen genuen aurrera egitea”.

Ambigü

Franco bizi zen garaian, pelikula hasi aurretik derrigorrezkoa zen No- Do-a botatzea. Hamar minuto inguruko iraupena izaten zuen eta Santolayaren ustez, “nahiko ondo etortzen zen. Izan ere, jendeak tokia hartu, lasai eseri eta pelikula hasi bitartean eroso jartzeko astia ematen zuen”. Beranduago *mo- vierecord* izenekoa hasi zen, iragarkie- kin. Pelikula hasi aurretik baita ere, kortoak botatzen zituzten, zuri-beltze-

an eginiko pelikula mutuak, “Charlot- enak eta abar. Jendeak gustura ikusten zituen 10 minutuko iraupena zuten kor- to haiek”.

Gauzak asko aldatu dira. *Odeón* antzokiak ambigü bat zuen, hau da, antzokian bertan taberna zeukan. Peli- kularen erdian atsedendia egoten zen eta jendeak zerbait hartzeko aprobe- txatzen zuen. Denborarekin pelikulak atsedetik egin gabe emititzen hasi zi- ren, “erdian etena egiteak zentzurik ez zuen. Eta horrekin batera, ambigua ere itxi egin genuen”. Dena dela, jendeak kanpoan erositako txutxeriak eramaten zituen zinera, “baina niri sekula ez zi- tzaidan inporta izan. Zinearen parte de- la uste dut. Ingalaterran, pelikula hasi- ta dagoenean ere, pasiloetan edari eta janari saltzaileak ibiltzen dira. Zineak bizia izan behar du, jendeak pelikula bere azalean bizi behar du eta horren inguruan mundu oso bat dago”.

1984, itxiera

Urteek aurrera egin zuten. Telebista etxe askotan sartu zen. Geroago baita bideoa ere. Igandero ez zen 1.600 herritar hurreratzen zinera. Sarrera numeratuak sal- tzeak ez zuen zentzurik, “askoz jende gutxiago joaten baitzen zi- nera eta lekua zegoen denentzat. Goizean sarrera numeratua erosi eta arratsaldean, kafe konpletoa hartuta zinera lasai joaten

ziren garaiak alde batera geratu zi- ren”. Takilan gero eta diru gutxiago sartzen zen. Zazpi langileri soldata ordaindu behar zitzairen hilero.

Eraikuntza garbi mantendu behar zen. Obra txiki bat edo beste behar zen. Laguntzarik ez zegoen inondik. Eta, *Odeón* antzokia sal- tzea erabaki zuten. “Pena handia hartu nuen baina bakarrik nengo- en. Gaur egun dauden laguntzak egongo balira, gauzak beste era ba- tera izango ziren, baina...”.

1984an bota zuten eraikuntza. Ha- ren azpian hainbat eta hainbat oroitzapen lurperatu ziren. San Antón egunez izaten zen jaialdi be- rezia lekurik gabe geratu zen.

Hainbat eta hainbat kontzertu- rentzatkoeskentoki handirik ez aurrerantzean Elgoibarren. Zinea- ren eta antzerkiaren ilusio eta ma- giaz jantziriko mundua desagertu egin zen. Haren tokian etxebizi- tzak egin ziren.

Hauxe zen Odeón antzokiaren fatxada.



Antzokia zegoen tokian etxebizitzak eraiki zituzten.



Zein mozorro ez zenuke jantziko sekula?



CELSO BABARRO
43 urte, mekanikoa

Ihauteriak mozorrotzeko dira eta nire ustez gustura bazaude edozerk balio dezake. Ez nintzateke lotsatuko edozein mozorro jantzita.



AITOR ARRESE
6 urte, ikaslea

Neskiana ez nitzan jantziko sekula, ez jata gustatzen. Nik nahixo dot beste zeozer. Aurten bakeroz jantziko naiz.



JOSE ANTONIO PASCUAL

36 urte, pintorea

Suhiltzailez, bat esategatik! Edozertaz mozorrotzeko prest nago. Berdin zait dis-fraza: pailazo, ehiztari.. Aurten sanbero joango naiz haurtzaindegikoekin.



ARANTZA APRAIZ

42 urte, langabetua

Printzipioz edozertaz jantziko nintzake ze karnabalak horretarako dia. Hala ere, batzuk gehixegi apainduta juten dia, gorputza erakusten eta hori ez jata gustatzen.



MARISOL SUAREZ

23 urte, etxekoandrea

Zonbiz jantzita ez nintzake sekula aterako, hildakuekin zerikusixa dakan ezerrekin. Inpresiaua eitxen die holako disfrazak. Aurten trapuzko muñekaz jantziko naiz.



JOSEFA PICÓN

40 urte, dendaria

Maskara zatar horiek jantzita ez nintzateke aterako. Oso zatarrak izateaz gain agobianteak iruditzen zaizkit. Asko gustatzen zaizkit drakula eta pailazo mozorroak, emakumezkoak.

Ordu betean errebelatzen dugu

foto | azkue

San Bartolome 26, Tel. 74 08 48

PUB

Tel: 74 16 76

KEMEN Belardenda

Estutasuna, antsietatea, depresioa, lo eza, tabakismoa, loditasuna, fobiak,... tratatzen laguntzen dugu. Zatoz, ez zara damutuko!

NATUROPATA - Programazio neurolinguistikoa (Practitioner eta Masterra) - **MASAJEA** - **REIKI**
- Osatze naturalaren **USUI** sistema

San Bartolome, 25 · Tel: 74 40 31 · ELGOIBAR

● Oroimena lantzeko ikastaroa Jubilatu Etxean

Datorren martxoaren 4tik apirilaren 8ra bitartean, Jubilatuko Etxeak antolatutako oroimena lantzeko ikastaroa emango da. Hirugarren adineko pertsonen dago zuzendua eta lehenbailehen izena ematea komeni da taldeak berehala betetzen dira eta. Klaseak asteazken arratsaldeetan izango dira, 15:00etatik 16:00etara bitartean. Bazkide txartela erakustea beharrezkoa da eta 500 pta. ordaindu behar dira izena ematerakoan. Goizeko 10:00etatik 12:00etara bitartean dago zabalik Jubilatuko bulegoa. Bigarren ikastarobat ere egongo da apiriletik ekainera bitartean.

● I. Igartza, literatur sorkuntzako beka

Beasaingo Udalak, Beasaingo CAF enpresaren babesarekin eta Elkarlanean argitaletxearen laguntzarekin, I. Igartza Literatur Sorkuntzarako beka sortu du idazle berrientzat. Bekaren zenbatekoa 500.000 pezetakoa da eta deialdira narratibazko lanak (eleberrri edo ipuin-bildumak) egiteko proiektuak aurkez daitezke. Egileek bi baldintza bete behar dituzte: 35 urte bete gabe izatea eta bi liburu baino gehiago argitaratuak ez izatea. Lanak aurkezteko epea 1998ko ekainaren 30ean bukatuko da eta ondorengo helbidera bidali behar dira: Euskara Zerbitzua, Udaletxea, Loinazko San Martin plaza, 20.200 Beasain.

San Frantzisko iturria berri bere lekuan

Azkenean itzuli da San Frantzisko iturriko aingerua jatorrizko lekura. Urteen poderioz, iturri honek kalte handiak jasan ditu eta bere egoera kaxkara ikusita, Udalak berriztatzea erabaki zuen. Aingerua Eibar-ko Alfa Arte izeneko enpresara eraman eta bertan zaharberritu egin dute, horretarako hormigoia eta soldadura erabiliz. Joan den astelehenean jarri zuten irudia jatorrizko lekuan, San Frantziskon, eta oraindik urik ematen ez badu ere, epe laburrera martxan egongo da.



Asier Albizuk DEBEMENko zuzendaritza laga du

Asier Albizu eibartarrak 6 urte eman ditu Merkatu Plazan kokatua dagoen DEBEMEN, Deba Beheko Mendi eta Nekazaritza Elkartearen zuzendaritzan. Hil honen 2an Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako Elikagaien Industria eta Politika saileko zuzendaria izendatu zuten Javier Retegiren buruzagitzapean. Urte hauetan Asierrek lan handia egin du bailarako nekazaritzaren hainbat arlotan. Honez gain, Izarraitz Bizirik programaren bultzatzailea izan da eta Deba Behean nekazalturismoa indartzeko sortutako helburua duen proiektua da.

● 'Barrikotea' Kimetz Elkartean

Kimetz Elkartea antolatuta, 'Barrikotea' izango da martxoaren 14an, zapatua. Afariko menua ez da nolana hiko: makailo tortila, txuleta erreak, intxaurrek eta gazta. Baina ez da jana bakarrik izango. Sagardea txotxetik nahi beste edateko aukera izango dute bertara joaten direnek. Afaria iluntzeko 21:00etan hasiko da eta 80 lagunentzat izango da tokia. Beraz, izena emateko azkar ibiltzea komeni da eta ohiko tokietan txartela jaso. 2.000 pta. izango da afariaren prezioa.

● 336.000 pta. batu ditu aurten anta Agedako koruak

Etxegiñak sortutako Santa Agedako koruen kalejiran batutako diruaren berri eman dute. Aurten bi alditan atera dira koruak kantari, Itzaropena abesbatzarekin Santa Ageda bezperan, hilak 4, eta hilaren 7an, zapatua. Bi egunetan batutako dirua 336.000 pta.koa izan da. Gastuak, berriz, 85.000 pta.ra iritsi dira. Beraz, aurtengo eskean izan diren irabaziak 250.618 pta.koak izan dira. Urtero bezala, diru hau Cáritas-i emango zaio.

Luis Ulazia arkitektoa saritu dute

Luis Ulazia arkitekto elgoibartarrak sari bat jaso du Zarautzko "Karmelitak 1" izeneko 66 etxebizitzako eraikinaren teilatua egiteagatik. Saria Galiziako Arbelaren Elkarteak (AGP) delakoak ematen ditu Estatu osoko arkitektoen artean. Sari hauen asmoa arbelaren edo pizarraren erabilera bultzatzea da eta material hau erabiltzen duten profesionaleri, euren esker ona adieraztea. Luis Ulaziak arbela erabili du Zarautzko "Karmelitak 1" etxearen teilatua egiteko.



Saria ematerakoan, epaimahai-koek kontuan izan zuten Luis Ulaziak egin duen arbelaren erabilera egokia, eta inguruarekin lortzen duen koherentzia eta edertasuna.



Liverpooleko ikasleak Elgoibarren

San Bartolome ikastola eta Liverpool-eko Litherland High School ikastetxeen arteko elkartruke progama dela eta, Liverpool-eko 19 ikaslek bi asteko egonaldia egin dute. 15 eta 16 urteko neska-mutilak dira eta Elgoibarko familietan pasatu dituzte egun hauek. Elgoibarren zian diren egunetan, ikastolara joan dira klaseak jasotzera; hainbat herri ezagutzeko aukera izan dute; Guggemhem museoan ere bisitatu dute, eta BARREN ikusten ere izan ziren. Argazkikoak Liverpool-eko ikasleak dira, euren arduradunarekin eta ikastolako irakasle batekin.

20 milioi Loteria Nazionalen

Madalako kioskoak 20 milioiko saria banatu zuen joan den zapatuko, hilaren 14ko Loteria Nazionalen. Bigarren sariaren serie bat edo 10 dezimo saldu ziren kiosko honetan, 95.723 zenbakiari dagozkionak. 10 dezimo hauek bederatzi pertsonak erosi zituzten, beraz, pertsona bakar batek erosi zituen bi dezimo. 98 urteari dagokionez, honako hau da kiosko honetan banatzen den lehen sari inportantea. Hala ere, kioskoko jabeak azaldu digunez, pasa berri diren Gabonetan, esaterako, sari txiki mordoska banatu zituen. "Guztira 60 bat milioi tokatu ziren, baina sari txikiak izatean, notizia ez da hainbeste zabaltzen".

150 bat alegazio OTAr en aurka

Joan den zapatuan 150tik gora alegazio aurkeztu ziren Udaletxeko idazkaritzan. Nahi izan zuenak euskaraz egiteko aukera ere izan zuen. Alegazioen kanpainako kide batek azaldu digunez, "adin eta pentsamolde guztietako herritarrak izan ziren alegazioak sinatu zituztenak. Hala ere, denera 150 alegazio baino gehiago jarriko direla uste dugu, epea, gaur, hilak 19 amaitzen baitzen eta zapatutik gaur arte aukera egon baita". Izan ere, herriko hainbat taberna eta dendatan alegazio orriak utzi dira, nahi zuenak sinatu eta Udaletxera eramateko. Kide honek esan bezala, alegazio hauekin zer egingo duten ziur ez dakite. "Sargentoari irratiz entzun nion Txankakuak aurkeztutako sindurak eta gure alegazioak 'aztertze' asmoa dutela, nahiz eta ez dakigun zer den aztertu behar dutena". Itxuraz, hurrengo plenoan hartuko da OTAr buruzko behin-betiko erabakia. OTAr alegazioen kanpainaren bultzatzaileen ustetan, "ezer egin aurretik, falta diren aparkamentuak nondik atera daitezkeen aztertu behar da. Errosario eta S. Bartolome kaleak oinezkoentzako izatea ondo deritzogu, baina nora bidali behar dituzte hor aparkatzen diren autoak? Hori da soluzionatu behar dena".

Elgoibarko EAJ, Ibarretxe lehendakari izatearen alde

Astelehenean, hilak 16, Elgoibarko EAJ alderdiaren Uri Buru Batzarrak bilera egin zuen lehendakari gairi buruzko iritziak entzun eta onespina eman ala ez erabakitze-ko. Urriari izango diren hauteskunde munizipalarako, Juan Jose Ibarretxe aukeratu du EAJren zuzendaritzak lehendakari posturako eta Juan Mari Atutxa Legebiltzarreko lehendakari izateko. Asteleheneko bileran, Elgoibarko Uri Buru Batzarrak onespina eman zien hautagai ofizialei. 38 lagun bildu ziren. 37 boto eman ziren Ibarretxeren alde, eta boto bat zuriz. Atutxa Legebiltzarreko presidente izatearen aldeko botuak 37 izan ziren eta boto bat Egibarren alde.

Bestalde, PNVko junta municipal berria aukeratu zen. Hauek hautatu zituzten: Mertxe Mujika, Monika Andonegi, Bittori Zabala, Iñaki Etxabe, Amagoia Aranburu, Juan Mari Eguren, Manolo Santos, Manu Astray, Iñaki Alvarez, Igor Palomino, Jose Inazio Galdona, Eloisa Zubiaurre eta Mari Ezenarro.

Musikeskolaren eraikuntzaren obrak hasi dira Leku-Ederren

Obrak hiru hilabete barru amaitzea espero da

1997ko uztailaren 30ean Elgoibar Inmobiliaria S.A. eta Udalak sinatutako hitzarmenaren arabera, aipaturiko promotorak bere gain hartu zuen Leku-Ederren musikeskola kokatuko den eraikuntza altxatzeko konprometua. Ordainetan, Udalak ziurtatu zuen enpresa horrek Mintxeta inguruan 150 etxebizitza eraikitzeke proiektuaren azterketa arinduko zuela. Musikeskolaren lokala eraikitzen hasi dira dagoeneko.

Hitzarmena uztailaren 30ean sinatu zen eta enpresak 180 eguneko epea zeukan musikeskolaren egitura altxatzeko. Halere, lehen obrak aste honetan bertan hasi dituzte. Jakin dugunez, hiru hilabeteko epea beharko dute langileek eraikuntza altxatzeko. Bertan egingo dira etorkizunean Elgoibarren antolatuko diren musika ekitaldiak, eta 100 pertsonarentzako kabida izango duen *auditoriuma* ere izango du.

Obraren batez besteko kostua 35 milioi pezetakoa da baina aurrekontua eraikuntzaren egiturarena bakarrik da, hau da, bizkarrezurrarena. Izan ere, barruko guztia egokitzea eta instalakun-



Musikeskola berriak 100 pertsonarentzako auditoriuma izango du

tzak behar bezala hornitzea Udalaren esku dago eta litekeena da epe laburren horrelakorik egiteko aukerarik ez egotea, "horretarako beharrezkoa izango da guztien laguntza izatea, Udalak mementu honetan dituen baliabide ekonomikoak ez baitira nahikoak", azaldu zuen Gillermo Garate alkateak.

Musikeskolarentzako eraikuntza baten beharra

Inazio Bereziartua musikeskolaren

eraikuntzaren beharra aspalditik azpimarratu eta aldarrikatu izan dute herritarrek. Izan ere, guztiek dakizuen bezala, mementu honetan Inazio Bereziartua musikeskolako ikasle guztiak han eta hemen sakabanatuak daude: batzuk Kultur Etxeko sotoan, beste batzuk Merkatu Plazan edo eta Aita Agirre plazan kokatzen diren eskolatan. Halako batean Leku-Ederreko eraikuntza egiten bada, musikeskola osoa bertan kokatuko litzateke.

Hondakinen gestioari buruzko ikerketa egin du Mankomunitateak Deba Beheko enpresetan

Deba Beheko Mankomunitateak hondakinen gestioari buruzko ikerketa sakona egin zuen 1997ko irail eta Abendua bitartean. Ikerketa Deba Beheko 415 industri enpresetan egin zen eta horietatik 80 Elgoibarren kokatuak daude. Ikerketaren helburua eskualdeko enpresen ihardueren errolda egitea eta hondakinen gestioan egon daitezkeen akatsak zuzentzea da. Bide batez, enpresei indibidualki informazioa eskaini nahi zaie hondakinen gestioan izan ditzaketan zalantzak argitzeko. Ikerketa egiteko enpresa bakoitze-

an hondakinen sorrera eta gestioari buruzko galdeketa egin zuten. Azterketaren emaitzen arabera, arazo larriena hondakin toxiko eta arriskutsuek sortzen dute. Izan ere, kopuru txikiak izan arren, enpresa guztiek sortutako hondakinak batuz kopuru kezagarria ateratzen da. Enpresek diotenez, kantidadez, kantitate txikiak direnez gestoreek ez dizkiete hondakinak jasotzen eta, gainera, gestioaren prezioa garestiegia ateratzen zaie. Arazoari irtenbide orokorra topatu beharra ikusi zuten.





Jesus Guerra: "Azken urtean txoko asko ezagutu ditut"

Jesus Guerrak 55 urte baka- rrik ditu. Hala ere, pentsionis- ta denez, Jubilatuen Etxeak antolatzen dituen irteera as- kotan hartzen du parte. Beti- danik izugarri gustatu izan zaio bidaiatzea eta azken ur- tean, hainbat txoko desberdin ezagutzeko aukera izan eta aprobetxatzea erabaki du. Ho- na hemen nondik ibili den.

- Lanik ez baina aprobetxa- tzen jakin duzu.

- Bai. Duela urte batzuk istripu bat izan nuen eta pentsionista naiz. Gaur egun ez dut lanik egiten eta bidaiatzea beti asko gustatu izan zait. Orain, pentsioaren asuntza dela eta, bidaiak merkeago egiteko aukera daukat eta ahal dudanean aprobetxatu egiten dut.

- Nondik ibili zara az- ken urtean?

- Santander, Asturias, Pon- tevedra inguruan, Costa Del Sol-en... Horietan guz- tietan ez dut astebete bai- no gehiago egin baina, hala ere, gauza asko ikus- teko aukera izan dugu. Iparraldea eta hegoaldea oso desberdinak dira bai- na bakoitzak bere txoko berezi eta politikak ditu.

- Hegoaldea askoz tu- ristikoagoa, ez?

- Beharbada bai. Egural- dia bikaina da eta horrek asko eragiten du, toki tu- ristikoetan hotel asko bai- tago. Iparraldean, aldiz, hondartzak askoz ikusga-

rriagoak dira niretzat, hondar zuri-zuria... Benetan politikak. De- na dela, tokian tokiko txoko eta paisaia politikak deskubritzea da kontua. Hau da, leku guztietan dago ikustea merezi duen zer- bait, bilatu egin behar da.

- Egonaldi lasaiak izan al dira?

- Normalean ez zeren eta astebe- teko irteerak izaten zirenez, aha- lik eta gauza gehien ikustea nahi izaten genuen. Batera eta bestera eramaten gintuzten. Costa del Sol-en egon ginenean, esaterako, pare bat egun baka- rrik izan genituen hondartzara


joan eta lasai egoteko. Ostantze- an, autobusean kilometro asko egin izan ditugu.

- Hala ere, nahi baino gutxia- go ateratzen omen zara.

- Bai. Gertatzen dena da emaztea ileapaintzailea dela eta ezin du- gula edozein fetxatan nahi beste egun kanpoan egon. Bera librea- go egongo balitz desberdina izango litzateke. Udan bai, abuz- tuan hilero hartzen ditugu opo- rrak eta beti joan izan gara bate- ra edo bestera, Alicanter, Valen- ciara, Extremadura aldera... Niri toki desberdinak ezagutzea gus- tatzten zait, ez beti berdi- nak errepikatzea. Bidaiat- zeak duen gauzarik poli- tena hori da, txokoak ezagutu, jendearekin ha- rremanetan egon eta egun batzuetan egunero- kotasunetik deskonekta- tzea. Indarberritua buel- tatzen zara beti. Gainera, oso jende jatorrarekin egin izan dut topo beti beraz, zer gehiago eska dezaket? Toki zoragarriak eta jende bikaina. Dena primeran.

- Hurrengoan nora?

- Ez dakit, ez dugu ezer pentsatu. Egia esan ez naiz sekula izan toki edo herrialde konkreturen bat ezagutu nahi duten horietakoa. Edozein leku- tan gustura ibiltzen naiz. Atzerrian Frantzia baka- rrik egon izan naiz eta beste edozein herrialde bisitatzeko konformatuko nintzateke, ezer konkretu- a izan gabe.





Juanito Etxaniz: "Biolina ez zan ezaguna nere epokan"

86 urte bete berri ditu baina

gazte askok nahiko lukete Juanito Etxanizek duen bizipoza eta hitz jarioa. Erreturatu zahar mordo bat hartuta etorri zaigu Eibartik, han bizi baita duela 54 urte ezkondu zenetik. Usain gozo artean jaio zen, aitak gozodenda zuen eta.

Baina berak, Juanitok, futbolista ere izan denak, bibolina jotzen pasa ditu urteak.

Oraindik orain prest dago ezkontza, meza edo antzeko ospakizunetan bere bibolina hartu eta entzuleen belarriak gozatzeko.

- **Txokolatero ofizioa izan zenuen.**

- Bai. Aitxak pastelerixia zakan eta harekin ikasi gendun biharra anai guztiok. Epoka hartan 15 zentimotan demaseko kanutilluak saltzen zian! Gero, Durangon egon nitzan biharrian txokolatero.

- **Oso gazte hasi zinen Bandan, ez?**


- Bai. Bereziartuakin ikasi naban solfeua eta gazte-gazte hasi nitzan bandan klarinetia jotzen. Baina, egun batian aitxak biolina ekarri zaban eta...

- **Nola izan zen hori?**

- Kliente bat zakagun sekula pagatzen ez zabana erositxakua. Holako baten biolina ekarri zigun zorren kontura. Gure aitxak baietz eta holaxe. Orduan zauan modan tangua, eta biolinak ilusia eitzen zaban eta nik ikastia nahi naban.

- **Eibarrera joaten omen zinen.**

- Bai, biolina bizkarrian hartuta bizikleta gainian juden nitzan Eibarrera biolina nola jo ikastera. Eta aurrera ein naban. Orduan ez zan



ezautzen biolina. Gure profesoriak jotzen zaban Salón-Teatro cinemudo deitzen jakonian. Izaten zan sonidorik gabeko pelikulia. Orkestra bat egoten zan eta pelikuliari laguntzeko musikia jotzen zaban.

- **Kontzertu asko eman zenuen.**

- Bai, asko. Elgoibarko "Lagun Onak" orfeiko Estudiantina orkestan jotzen naban eta gero, beranduo, Eibarko Rialto Orkestan ere ibili nitzan. Pezeta bixan taxixan juaten ginan Eibarrera. Taxirako juntatzen ez baginan lau lagun, juden ginan trenian eta gero, gabian, oinez bueltau. 4 duro pagatzen ziguten Rialtuan kontzertu bakoitzagatik. Epoka haretan, 1931 inguruan, sartzen zan tailarrera pintxe hileko 3 pezeta irabazten, eta makinan ipinitxakuan 5 pezeta. Pentsau ze izango zan lau duro irabaztia atsaldez eta gabez jotziagatik!

- **Despedida, ezkontzak, uda sasoian...**

- Zestuan Barrainkua pianistiakin ere jotzen naban. Urte batian, Debako Casinuan, oin txurrerixia daon tokixan, kuarteto bat egon ginan etengabian kontzertuak ema-

ten. Casinua pribaua zan, sozio izan bihar zan hara juteko. Uda guztia egoten ginan.

- **Zure alabek ikasi al dute musika?**

- Ez da batere! Eta hori oin musika ikastia erretzaua dala. Oingo metoduakin segitxuan hasten dia instrumentua jotzen. Lehen bestelakua zan!

- **Zenbat bibolin dituzu?**

- Bi. Alemanian egon nitzanian ahizpan etxian, neska batekin biolina jotzen naban. Haren aitxa abiadoria zan eta hil ein zan. Hiru biolin laga zitxun eta alargunak bat hartzeko esan zian. Biolin haura askotan arreglau izan zian Fernando Martinek. Petatxo mordo bat dakaz eta biolinan egurren igual-igualakin konpontzen zaban. Haren alargunari ematera nua biolina. Nik beste biolin batekin jotzen dot.

- **Oraindik ere biolina jotzeko prest?**

- Bai horixe! Iaz Lekeition domekero jotzen naban hamarretako mezan biolina. Oin dala hilabete batzuk txar bat euki naban eta piskat lagata dakat baina berriz ere hasteko prest nao.



ETA ZUK, ZER DIOZU?

Ba al daukazu automedikatzeko ohiturarik?

Azken asteotan botiken inguruko gaia pil-pilean dago komunikabideetan. Izan ere, orain arte segurotik har genitzakeen hainbat medikamentu aurrerantzean ordaindu egin beharko dira. Aste honetan gure herriko zaharrei galdetu diegu ea medikura joan eta hark errezetatutakoa hartzeko ohitura duten edo, alderantziz, nahiago duten euren kasa moldatu eta etxeko kajoitik hartutako zeozer edo farmazian erositako jaraberen batekin konpondu. Denetik esan digute. Batzuek fin-fin jarraitzen dute medikuaren agindua. Beste batzuen ustez, aldiz, sendagileek behar baino botika gehiago bidaltzen dituzte. Eta bada sendabelarren aldekoa denik ere.



Celestina Etxaniz

Katarro txiki bat baldin bada, aspirinia hartu eta kitxo. Gitxi juten naiz medikora, bi hilian behin tentsiua hartzera bakarrik. Gure etxian ez dao botikaz betetako kajoirik, aspirina batzuk eta tentsiorako pastilak besterik ez. Ahal bada nahixo dot botikarik be pasatzia.



Abdon Ansola

Ni medikuana juten naiz eta harek esandakua fin-fin betetzen dot. Lehen gitxio juten nitzan baina oin kaso asko eitxen diot medikuak esandakuari, bai botiketan baitxa jatekuan. Momentuz ondo dixen. 1990ian tronbosixa euki naban eta ondiok hemen nao ondo!



Moises Agirre

Badaezbada ere medikuana juten naiz ni. Arrebak askotan esaten dia gauza bat edo beste bat ona dala eta hartzeko baina ez diot kasurik eitxen. Medizina gortetzeko ohitxuririk ez dakau. Nik medikuak esaten diana segitxu eta kitxo.



Paulina Lasa

Belarrak eta nere ohitxura batzuk badazkat baina botikarik ez. Ez naiz botika asko hartzekua. Gustatzen zataz belarrak, pasatzen dana da luzia dala eta diru asko gastau bihar dozula. Zeozer serixua darian medikuana jutia izaten da onena.



Patricia Trojaola

Hortan bastante zuzenak ga. Zeozer dauanian medikuangana jun eta harek esaten dabanari kaso eitxen diou. Baina, nere ustez, botika kantidadia pakete txixixuetan saldu biharko leukie, ze askotan botikak sobran geratzen jatzuz. Nerezako medikamentu larregi ematen dabe, batzuetan bihar baino gehixo.

Lehen ere izan genuen Arnaldo Otegi 'Berbetan' sailean. Orduan Eusko Legebiltzarrera iritsi den lehen elgoibartarra izan delako egin genion elkarrizketa. Orain, berriz, HBko Mahai Nazionalean estreinakoz izango dugu elgoibartar bat, Arnaldo, alegia. Bien bitartean, eta Mahai Nazionalako kideak espetxeratu zituztenetik, HBko behin-behineko bozemaile izan dugu. Hau guztiaren inguruan eta Euskal Herriak bizi duen egoerari buruz berba egin nahi izan dugu berarekin.

ARNALDO OTEGI

“Ermuko izpirituaren atzean Espainia beltza ikusten dugu”

- **HBko bozemaile izatea nolako esperientzia izan da?** - Ez dut sekula bokaziorik euki holako fama jasotzeko. Beti azpimarratzen dut prozesu hau ez dela naturala, fortzatutakoa baizik. HBren zuzendaritza politikoa gartzelara eramanez dute eta horrek behartu gaitu.

- **Euskal Herrian ez al dago mahai askotxo eta berba egiteko borondate gutxi?** - Hitz egitea beti da onuragarria denentzat. Baina ez dugu aurrealdintzarik onartzen. Euskal Herria eraiki nahi badugu argi dago beste batzuekin kontatu behar dugula, interes objektibo hori dutenekin. Horretarako hitz egin behar dugu eta marko komunak eraiki. Argi daukagu interes partidistak alde batera utzi behar direla eta Euskal Herria jarri behar dela mahaiaren erdian.

- **HBko Mahai Naziona-**

la gogorra omen da. - Guk ez dugu ahazten kolpe latza jaso dugula. Mahai Nazional bahu bat dago eta beste Mahai Ejekutibo bat kanpoan zuzendaritzaren arduradun. Ez dugu mahai gogor edo bigunetan sinesten, herri honek gogorra duena bere etsaia da.

- **Hirugarren esparruak ba al du tokirik HBn?** - Badira estatutismoaren alde egon diren sektoreak eta gaur egun Estatutua hilda dagoela eta soberaniaren aldeko apustua egin behar dela uste dutenak. Horren adibide izan zen ELAren manifestazioa Gernikan. Horrek poztu egiten gaitu ezker abertzalearen betiko posizio politikorekin bat egiten duelako. Guk ez diogu hirugarren esparrua deitzen. Euskal Herrian sortzen ari den esparrua soberaniaren esparrua da. Kapaz izan beharke ginateteke egunen batean bide hori jorratzeko, eta kon-

bentzituta gaude jorratu egingo dugula.

- **Kale borrokari buruzko iritzi ezbedinak omen daude HBren baitan.** - Lehenik, kale borroka dago konfliktu politikoa dagoelako. Bigarrenik, gure errespetoa mezezi dute gartzelarekin jokatzen duten gazte hoiek. Eta hirugarrenik, ez gaude ados egiten diren gauza guztiekin. Baina, HB ez dago panorama honetan ezer kondenatzeko. Garbi dago badaudela gure prozesuari kalte egiten dioten gauzak eta ez direnak ulertzen. Enfrentamendu hauek sektore ezberdinen arteko zubi-etena sortzen dute baina bi aldeetatik egiten da. Kale borrokak egiten du baina Ertzantzaren interbentzioek ere bai.

- **Gonbidatuko al zenituzke Ermuko Izpiritukoak HBren mahaira?** - Eztabaitatzera? Bai, konbentzituta nago hoiek arrazoi gutxi dituztela eta beraz, erraz konbentzituko genituzke. Ermuko izpiritu famatu hori bere garaian ETAren kontrako izpiritu bezala saldu izan zen. Baina gero eta sektore gehiago konturatu dira horren atzetik abertzaletasunaren kontrako eraso zetorrela. Ermuko eskena hartan guk ikusi genuen betiko Espainia beltza: monarkia, estado mayorra, guardia zibilarren burua,...

- **Zergatik aukeratu zaituzte?** - HBn eta ezker abertzalean urte asko daramadala eta ekarpen politikoa egin ditzakeelako. Honez gain, badago ezker abertzalearen kultura politikoa pisua duen faktore bat: bere garaian gartzelatan egotea. Beste agente sozial eta politikoekin komunikatzeko gaitasuna badudala uste dutelako ere izango da eta HBn posizio politiko orekatua mantentzen dudalako.

BESTE EK ESANA

“Bihotz osoz Euskal Herria maite duen pertsona optimista eta umoretsua da”
JOSEBA PERMACH, mahaikidea





Jñakli Ansola

Jñakli Ansola "Txanbo" k 7 urte daramatza Brasilen. Orain dela 8 urte, berak eta Elgoibarko beste lagun batek udako

oporak Brasilen pasatu zituzten. Bahia estatuko hiriburua, Salvador hiria ezagutu zutenean, hango jendea, kaleak eta klima gozoa, Iñakik gauza oso berezia sentitu zuen barrenean. "Kaleetatik pasatzian edo jendiakin berba eitzera gustora sentitzen nitzan". 1992ko udan bertako neska batekin ezkondu zen.

Brasilgo gizartean integratzea ez da bat ere lan zaila izan elgoibartar honentzat. Bizimodua erabat aldatu behar izan du, noski. Hala ere, benetan gustura bizi da bertan. Momentuz bertan geratzeko asmoa dauka baina, urtero edo bi urtetik behin, jaioterrira etortzen da familia eta lagunak bisitatzerako. Bizipahiru edo lau aste egiten ditu gure artean, "benetan igartzen dot familixian eta lagunen faltia".

Iñaki irakaslea da. Espainoleko klaseak ematen ditu Unibertsitatean. Komentatu digunez, eskola bat jarri du martxan, 'Instituto Cultural San Migel', "nere familixian ohorez". Momentuz gela bakarra dauka eta gaztelania irakasten du baina asmoa hizkuntza gehiago irakastea da. "Euskeria ere erakustia nahi dot. Euskal Herrixari buruz zeozer azaldu eta gure kulturaren berri eman".



**bidaia agentziak
babestutako atala**

Foruen plaza, 3
Tel: 74 39 12

Cludio Monreal Martinez

(1906-1964)



- 1906ko uztailearen 16an jaio zen Nafarroako Esparza de Salazar herrian.
- Guillermo eta Demetria ziren bere gurasoak. 11 anai-arreba ziren, Cludio 9.a. Hainbeste seme-alaba edukita, zailtasun askori aurre egin behar izan zioten.
- Bere herrian lehenengo ikasketak egin ondoren, Gasteizen ekin zien maisu ikasketei. Karrera Valladoliden amaitu zuen. Pozik bere gustuko ikasketak egin zituelako.
- Arabako Ali herrian ezkondu zen Isabel Sarachorekin eta 3 mutiko izan zituzten.
- Arabako Tres Puentes herrian hasi zen irakasle, Nanclares de Ganboan ere bai, Miñano Mayorren beranduago, Navaridasen, denak Arabako herriak. Burgosen ere aritu zen lanean, Alcocero de Molan eta Cantabranan.
- 1936ko gerrateko kontuak zirela eta, 6 urte eman zituen Gasteizko Karmelitetan, Murgian eta Carmonako gartzeletan. Zigor handi hauek pasatu eta gero, 9 urte egon zen eskola maisu lanik egin gabe orduko erregimena zela eta. Urteetan asko sufritu zuten bai berak bai bere familiak.
- Gasteizen bizi izan zen familiarekin 6 bat urtean. 1949an Elgoibarko eskola publikoetara bidali zuten eta bi urtera, familia osoa elkartu zen.
- Claudiok denboraldi zorionsua pasatu zuen Elgoibarren. Oso ezaguna egin zen herrian.
- Subasta jokoa oso gogoko zuen. Baita C. D. Elgoibar, irakurtzea eta paseatzea ere.
- Correos zaharra zegoen etxean bizi izan ziren, gaurko Kultur Etxea.
- 1949tik 1964ra arte egin zituen maisu lanak Elgoibarren. Errespetozko eta itxura serioko gizon hau, sasoi dexentea zuela, 1964ko otsailaren 11n hil zen 58 urterekin.

Juanito Gorostiza



ERRETXINDI
Inmobiliaria Agentzia

Miguel Larrainaga Aizpitarte

API 254

Eskaerari aurre egiteko pisuak,
baserriak eta lokalak behar ditugu
salmentan edo alogeran.

Errosario, 25 ☎ 74 43 58



A

uteriak direnez, argazki zaharra in behar derrigor. polit hau **Begoña** gu eta 1953 edo akoa izan daiteke. au neskatila hauek **Loli Astigarraga**

eta **Lolita**...

Argazkiari begiratuta, egia esan, ezin daiteke zehatz esan zertaz jantzita dauden neska hauek. Txapelengatik

mexikarrak dirudite baina soinekoei begiratua, berehala konturatuko gara Sevilla aldekoak direla. Nesken atzeko aldean agertzen dena ez da Elgoibarko tokiren bat, dekoratua baizik. Jakingo duzuen bezala, garai hartan sarri ateratzen ziren erretratuak horrelako dekoratuen aurrean.

***Oharra:** Joan den astean, Jose Luis Odriak ekarritako pilotarien argazkian, datu bat oker zegoen. Mariano Juaristi "Atano III" hilda zegoela jartzen zuen baina Jose Luisek esan digunez, "Atano III" ak bihar, hilak 21, 94 urte beteko ditu, beraz ez dago hilda.*



"Gero eta jende gehiago etortzen da aerobikera"



Conchi Reche

- **Adina:** 26
- **Zaletasunak:** Flamenkoa eta jazz dantzatzea, irakurtzea eta zinea.
- **Aitortzeko moduko biziorik?** Jazz klasera joatea, nire pasioa da.
- **Zer musikarekin ezin duzu dantza egin gabe egon?** Funky-arekin eta Jazzarekin.

- Noiz hasi zinen Kirolegian aerobik klaseak ematen? - Urrian 8 urte beteko dira, 19 urterekin hasi nintzen. Niri txikitatik gustatzen zitzaidan dantza egitea. Barruan daramadan zerbait da. Gogoan dut behin, 8. mailan nengoenen, tutoreak esan zidala: 'eta zuk zer ikasi behar duzu?'. Eta erantzun nion: 'nik dantza egin nahi dut'. Baina dantza mundu guztiak egiten zuen zerbait zela esan zidan, eta zerbait ikasi beharko nuela suposatzen zen. BUP egin nuen mundu guztiak bezala eta gaur egun pena daukat txikitatik dantzaren munduan seriozki hasi ez nintzelako. Aukera handirik ere ez nuen izan, egia esan.

- Nola hasi zinen aerobikean? - Kasualitatez izan zela esan daiteke. Ermuan jazz dantza klasera joaten hasi nintzen. Irakasleak erraztasun handia nuela ikusi zuen eta noizean behin klasea emateko eskatzen zidan. Aerobika eta gimnasia ere ematen zen eta horrela sartu nintzen mundu honetan. Gero Elgoibarkoa sortu zitzaidan.

- Gaur egun aerobika izugarri zabaldu da. - Azken urteotan batez ere. Gero eta jende gehiago etortzen da urtero eta klase bakoitzean 30 bat lagun daude gaur egun. Eskaintza ere ugalduta egin da. Aquerobik ematen dut, salsa ere konbinatzen dut aerobikarekin,...

- Aerobikak bariante asko ditu, beraz. - Bai. Badago 'aerobici' deritzona, bizikleta estatikoaren gainean musi-

karen erritmoarekin egiten dena. Salsa-aerobik ere badago; 'slide' delakoa ere bai. Azken hau alfonbra moduko baten gainean egiten da. Hanketan patinak jartzen dira eta alfonbraren gainean alderik alde aritzean datza, patinatzen bezala. Noizbait egin dut eta oso gogorra da, berna eta hankentzat batez ere.

- Bestelako ikastarorik eman duzu? - Salsa eman izan dut. Berez ez naiz salsan aditua baina klaseak emateko gai nintzela banekielako animatu nintzen. Sevillanak ere eman izan ditut eta orain flamenko ikastaroa egin dut. Baina laga egin behar izan dut, flamenkoak belaunak txikitzen dituelako eta asteroko lana nahikoa nekeza delako. Fisikoki baino gehiago burua nekatzen zaizu, erretzeko arriskua dago.

- Astean birritan aerobika egitea nahikoa da forman egoteko? - Ezer egiten ez duen batentzat bai baina kirola egiten duen norbaitentzat, aerobika osagarria da. Erresistentzia lantzen da, koordinazioa, elastizitatea, indarra,... aerobika oso konpletua da eta pertsonaren autoestima eta irudia hobetzen du.

- Berrikuntzak etengabean ateratzen dira mundu honetan. Zuek ere berri beharra izaten duzue? - Bai, ni ikastaroetara joaten ahalegintzen naiz baina ikastaro gehiegi egitea ere ez dut nahi izaten, urtean hiru bat asko jota. Orain, adibidez, ostiralero Donostiara joaten naiz ordubeteko jazz klasera eta egia esan, asteko onena da.

ESKOLAK ARTEKORO KIROLEKIA

EMAITZAK (Otsailak 14, 11. jardunaldia)

ARETO FUTBOLA

- **Alebin mutilak** ■
Ikas Espadidubi 7 - Pilar Flash 0
Ikas Inpernu 0 - Ikas Gol 18
Herri Boomerang 4 - Pilar All Star 5
- **Alebin neskak** ■
Ikas Trumoi 3 - Ikas Planet 1
Ikas Txingor 1 - Pilar Girls 3
Herri Argi 2 - Pilar Kas 3

ESKUBALOIA

- **Benjamin mutilak** ■
Pilar Bulls 0 - Ikas Bihurri 13
Ikas Gorri 1 - Ikas Bulls 10
Ikas Tximista 13 - Herri Otsokoak 1
Mendaro A 4 - Pilar Lakasitos 3
- **Benjamin neskak** ■
Pilar Txiki 4 - Ikas Hartz 4
Ikas Bizkor 0 - Ikas Beleak 13
Pilar Usoak 3 - Ikas Ortazar 2

AGENDA (Otsailak 21, larunbata, 12. jardun.)

ARETO FUTBOLA

- **Alebin mut. (Mintxetan)** ■
10:30 Ikas Txingor - Ikas Laino
11:15 Herri Argi - Ikas Planet
12:00 Pilar Girls - Pilar Kas

SASKIBALOIA

- **Infantil mutilak (Ikastolan)** ■
11:15 Ikas Otsoko - Pilar Ajax
12:00 Ikas Axelko - Perraubekoak
- **Infantil neskek (Ikastolan)** ■
10:30 Ikas Spanky - Pilar Mix
12:00 Ikas Gorribeltz - Blablatarrak

SASKIBALOIA 3X3

- **Kadeteak (Pilar ikastetxean)** ■
11:00 Pilar Boys A - Basati B
11:45 Basati A - Pilar Boys B

ESKUBALOIA

- **Benjamin mut. (Kirolegian)** ■
9:30 Pilar Bulls - Ikas Gorri
10:00 Ikas Tximista - Ikas Bihurri
10:30 Mendaro A - Ikas Bulls
11:00 Herri Otsokoak - Pilar Lakasitos
- **Benjamin nesk. (Kirolegian)** ■
11:30 Pilar Txiki - Ikas Bizkor
12:00 Pilar Usoak - Ikas Hartz
12:30 Ikas Beleak - Ikas Ortazar

KIROLDEGIKO KANTXAREN BERRINAUGURAZIOA

Ligako txapelkunak izan diren nesken eskubaloitaldeak omendu zituzten

Kiroldegiko kantxa bete egin zen joan den domeka goizean berrinaugurazio ekitaldia ikusteko. Haritz Dantzari Taldearen eta Udal Txistularien aurriskuaren ostean, udal agintariak plakak banatu zieten Arrate eta Bidasoa taldeetako ordezkariak.



Elgoibarko nesken bi eskubaloitaldeak omendu zituzten ligako txapelkunak izan direlako kadete eta juvenil mailan. Ondoren, Bidasoa eta Arrate taldeen arteko partidua hasi zen. Azkenean Bidasoak 24 eta 22 irabazi zion Arrateri. Behean, Bidasoa taldekoak, agintariak eta Unceta Elgoibarko taldeko neskek.



KIROL ALBISTEAK

● **Lau domina Ibai Elkarteko judokentzat**

Ibai Kirol Elkarteko alebin talde batek, Gipuzkoako Judo Txapelketako finalerako puntuagarriak diren Eskola Kiroleko lehen judo jardunaldietan hartu zuen parte joan den zapatuan Tolosan. Alebin nesketan Zuriñe Polok urrezko domina lortu zuen eta Maria Idiakezek brontzezkoa. Alebin mutile-

tan, berriz, zilarrezko domina eskuratu zuen Aitor Mugerzak eta brontzezkoa Fernando Pazmiñok. Gripearean ondorioz, judoka askok ez zuten jardunaldi honetan aritzerik izan. Datorren hilaren 21ean, kirolari guztiak Arrasaten jokatu den lehiaketan parte hartzea espero dute.

EMAITZAK

Futbola

- Haundi 2 - Aurrera Vitoria 5
- Gwendoline 2 - Elgoibar 2 (2. erreg.)
- Beranberri 0 - Pedrusko 2 (2 erreg.)
- Elgoibar 0 - Ordizia 2 (E. L. jub.)
- Zarautz 1 - Elgoibar 0 (1. jub.)
- Elgoibar 1 - S. Inazio 0 (Kad.)
- S. Herrera 8 - Elgoibar 1 (Inf.)
- Bilbo 3 - Elgoibar 2 (Neskak)

Eskubaloia

- Unceta Elg 20 - Zarautz 7 7 (Kad. nes.)
- Loiola 25 - Pneumax Elg. 17 (Kad. mut.)
- Zarautz 11 - Pagoaga Elg. 21 (Jub. nes.)
- Loiola 12 - Tecnomeca Elg. 21 (Jub. mut.)
- Elgoibar 26 - Legazpi 26 (Seniorrak)
- Bidasoa 24 - Arrate 22

Areto futbola

- Askasibar 3 - Elgoibar F. S. 3 (Auton.)
- Lasarte Kirolak 5 - Elgoibar F. S. 5 (1. maila)

Idarraga kafeak, I.Saria

C.D.ko jokalaria erregularrena 97/98

JokalariaPuntuak
1- Eneko Barrenetxea32
2- Miguel Díaz29
3- Gorka Guarrotxena26
4- Iker Atxabal22
5- Gaizka Lazarobaster19
6- Ander Iruretagoiena19
7- Jabier Gurrutxaga19
8- Joseba Igartua15
9- Karlos Madina15
10- Koldo Agirregomezkorta15
11- Unai Aranburu14
12- Mikel Elkoro-Iribe9
13- Xabier Alonso9
14- Jon Argoitia9
15- Igor Prieto8
16- Aitor Trebiño8
17- Mitxel Badiola6
18- Aiert Zinkunegi5

AGENDA

Futbola, Mintxetan

- Larunbata, 21
- 16:30 Elgoibar - Gazteak (1. jub.)
- Igandea, 22
- 17:00 Elgoibar - Gernika (Neskak)

Eskubaloia, Kiroldegian

- Larunbata, 21
- 16:00 Tecnomeca Elg. - Sercoin (Jub. mut.)
- 17:30 Pneumax Elg. - Sercoin (Kad. mut.)

Areto futbola, Kiroldegian

- Ostirala, 20
- 22:10 Elgoibar F. S. - Txanela (1. maila)
- 23:10 Elgoibar F. S. - Aiako F. S. (Auton.)


Black Power

Atea ireki eta iluntasunean murgildurik pausoak pausatuz, eserleku biribil batean eseri eta kearen jarioak ongi-etorria ematen digu. 50 urte atzera begiratu eta Jazz Club batean bageunde, egunerokotasunetik ateratzen den kontzertu bat (edo bi) ikusteko zorzea eduki genuen.

Bartzelonatik datorkigu arima beltzeko laukote hau, **Victor de Diego Quartet** izenpean. Jazz talde arruntetan erabiltzen diren instrumentuez baliatzen dira, honako hauek dira: Victor de Diego (saxoak), Marc Miralta (bateria), David Mengual (kontrabaxua) eta Jordi Bonell (kitarra).

Emanaldia hasi bezain laster, begiak itxi eta ahoa zabaltzen dugu. Saxoak eta kitarrak marraztutako pasarteak bateriak eta kontrabaxuak garraiatzen dituzten heinean giroa berotzen doa. Coltrane, Bird... abesti alai bat... orain blues bat... tristura... oihiak, txaloak,... beste abesti bat... zoragarria... inprobisazio bikainak... agurra... bukaerak uzten duen zaporea, aldaezinak diren momentuekin nahasten dira. Ahaztezina.

**Iban Urizar
Julen II**



Euskal Ihauteria, Haritz Dantzari Taldearen eta Mauxitxaren eskutik

Txarangakoek eta 60 dantzarik hartuko dute parte kalejiran

Bihar, zapatua, Mauxitxa txarangak eta Haritz Dantzari Taldeak, Eibarko Kezka eta Debako Gure-Kai taldeetako dantzarekin batera, Euskal Ihauterien ikuskizuna plazaratuko dute. Arratsaldeko 18:30ean hasiko da ikuskizuna Plaza Handian eta herriko kaleak zeharkatuko dituzte kalejiran. Jose Inazio Sarasua Haritz Dantzari Taldeko zuzendariak esan digunez, 60 dantzarik hartu dute parte jaialdian.



Argazkian, Haritz Dantzari Taldekoak Lapurdiko ihauteria dantzatzen.

Elgoibarren 1983ko irailaren 3an egin zuen lehen aldiz Haritz Euskal Dantzari Taldeak Euskal Ihauterien dantza ikuskizuna. Orduan Baxe Nafarroako Luzaideko dantzak izan ziren ikusgai, euskal jantzi tradizionalen ikusgarritasunarekin batera. Aurten Haritz Dantzari Taldeak 25. urteurrena betetzen duela eta, Euskal Ihauterien ikuskizuna berreskuratu dute, baina oraingoan 60 dantzari-entzuten partehartzearekin. Jose Inazioaren esanetan, “83an erten ginanian, 24 dantzari ginan, 12 neska eta 12 mutil. Baina oin proiektu haundixaua prestau dou, bailarako dantzariak kontutan hartuz, aspalditik sortzekotan gauden bailarako Dantza Elkartearen filosofia horren haritik”.

Luzaideko dantzak eta Lapurdikoak dira Haritz Dantzari Taldeak eskainiko dituenak. Dantza hauek oso ikusgarriak dira, “batez ere dantzariak eruaten ditxuen jantziengatik. Nesken trajeak oso elegantiak dia. Mutilek txapel luze bat eukitzen dabe eta zintzilik zinta batzuek, bolantak deitzen dianak. Erdixan ispilu txiki modu bat daukate eta egixa esan, kalejira osua txapel hoiekin eixia, azkenerako oso neketsua izaten da”. Kalejira Plaza Handian hasiko da eta Santa Ana ingurua zeharkatu ondoren, Madala aldera abiatuko dira. Asmoa kalejira Plaza Handian amaitzea da, 7:30ak inguruan. Kalejiran doazen bitartean polka eta kontrapasa dantzatuko dituzte.



Baxe Nafarroko Luzaide herriko jantziak ikusi ahal izango dira, bihar, hilak 21, iluntzeko 18:30etik aurrera.

Sarasuak azaldu digunez, hiru bat hila-bete eman dituzte zapatuan eskainiko duten ikuskizuna prestatzen. “Haritzeko dantzari-entzuten lenaotik ezagutzen ditxue dantza hauek, baina nahikua lan ein bihar izan dou Debatik eta Eibartik etorri diazen dantzari asko gaztiak diazelako”. Lanordu askoren fruitua da zapatu arratsaldean Haritz Dantzari Taldeak erakutsiko duena. Euria egingo balu, bertan behera geratuko lizateke dena, ikuskizun hau kalean egitekoa baita.

Ekitaldi ugari

Ihauterietako ikuskizun honez gain, Haritz Dantzari Taldeak ekitaldi mordo bat dauka programatuta datozen hiltbetotarako. 25. urteurreneko ekitaldi hauen artean, batzuk aipatzearen, Txistularien Elkartearen lehenengo biltzarra, buruhandien topaketa, euskal dantza jaialdia Portugaleteko Elai-Alai eta Añorgako dantzari-entzuten eta San Juan suak aipa daitezke.



Nestor Fuente

"Filobiblion da Zazpikin

10 urte ein ditxuan programa bakarria"

Nestor Fuentek 24 urte ditu. Zazpiki irratia duela 13 urte sortu zen. Gaur hartan, Nestor ume bat zen baina, hala ere, umeen saio baten parte hartzen omen zuen txisteak kontatzen. Urte batzuk aurrerago, 14 zitueanean hain justu, beste hiru lagunekin irratia saio propioa izateko ordua iritsi zela eta bilera batera joan ziren. Filobiblion sortu zen eta otsailaren 6an hamar urte bete ditu. Nestor da sortzaileetatik iraun duen bakarria. Filobiblion larunbat arratsaldeetan emititzen da, 15:00etik 17:00ra.

- Nondik sortu zaizu irratiarekiko zaletasuna?

- Txikixak ginanian lagun bati radiokasete moderno bat erregalatu zioten, bi pletina zitxuan eta musikia eta ahotsa grabatu eitzen zitxuan. Bere etxian ibiltzen ginan gure kontura programak grabatzen. Gero, larunbat arratsalde askotan zer ein jakin gabe egoten ginan eta zazpikin programa bat eixia pentsatu genduan.

- Nondik ateratu zenuten Filobiblion izena?

- Lelengo aldiz jun ginanian Zazpikiren bilera batera programia eixeko asmuakin, izena pentsatu bihar gendula esan ziguten. Lehen bilerak liburutegi ondoko lokal batian eitzen zian eta zela ez zakigun ze izen aukeratu, liburutegira jun ginan eta liburu bat hartu gendun. Filobiblion izena zakan liburuak, gustau ein jakun eta gaur arte.

- Zer esan nahi du?

- Liburuak ikasten ditxuan pertsona bati deitzen jako hola, ez daka zerikusirikan gure programiak.

- Zein erako irratiaioak egiten dituzu?

- Batez ere gaztiei zuzendutako programak dia eta era guztietako gaiak lantzen ditxugu: politika, ekonomia, sexua, drogak... Horrekin batera musikiari ere lekua eixten diogu, elkarrizketak, disko aurkezpenak. Informazio alternatibua ematen dot.

- Hamar urtetan denetik egingo zenuen. Ba al duzu programa bereziren bat?

- Euskal preso politiko batekin elkarrizketa bat eixxia lortu genduan. Gartzela barruan zeudela galderak bialdu genitxun, eurek grabatua ein zebe eta gero guk gure programan emititxu genduan.

- Ilusio bera mantentzen al da?

- Ilusioa bai, pasatzen dana da bazuetan ikusten dozula zu astero-astero zaudela lan bat eixten eta, beste alde batetik, pertsona batzuen lagakerixagatik edo, gero eta programa gutxio daudela, asambleetara ez da ixia inor

agertzen, herriko kolektibuek ere ez dabe irratixa erabiltzen... Hala ere, udan, programia ez dounian eixten tximinuakin egoten naiz.

- Unitate mugikorrarekin ere ibiltzen zara.

- Bai, aspaldi gitxio ibili izan gera estropeauta euki doulako baina Gabon Zahar ferixa egunian kalera urten ginan. Neri asko gustatzen jata, zuzenian kaleko jendian iritxizak jasotzia, futbol partiduak retransmititxia... Saltsa politixa izaten da, pena bakarria da jende asko mikrofono aurrian bildurto eixten dala.

- Kaskoak jarri eta zure ahotsa entzutea gustatzen al zaizu?


- Bai, gaur egun kaskorik jantzi gabe oso zailla eixten jata emititxia. Oin momentuan ni bakarrik nao programia eixten eta entzulantzat nahiko monotonua ein laike ahots bakarria entzulia horregatik saiatzen naiz elkarrizketak eixten, kanpoko jendia ekartzen.

- Irrati eta Telebistan graduatua zaude, ez?

- Bai baina oingoz langabezian nao. Hilabete egon nitzan oin dala bi urte Egin irratian kirolelan. Kirolak ez dia gehixen gustatzen jatan saila baina, hala ere, gustura ibili nitzan. Egunen batian irratixan profesional modura lan eixxia espero dot.

- Urteurren berezi hau nola ospatuko duzue?

- Bixar, larunbata, Gaztetxian iparraldeko Skunk taldean kontzertua egongo da eta gero Filobiblion Sound System disk-jockeyi. Ni ibiliko naiz musikia pintxatzen, Danetik jarriko dot, ska, bertako musikia... Jendian arabera, baina goizeko 6:30etatik aurrera musika gogorra.





INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko. 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.YA (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea. 756264
 Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak. 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia. 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua. 744366
 Udal Kirol Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua 742158
 Mendaroko Udala 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 741626
 Kirolegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547
 Gaztetxea 741357

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza. 740296
 Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
 HHI. 74 08 80
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 Pilar Ikastetxea. 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN. 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo Español. 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki irratia 74 34 74

A G E N D A

21 ..larunbata..

7:30 NAFARROAra
MENDI TRABESIA
 Irteera Plaza Handitik
 Antolatzailea: Morkaiko
 M. E.

16:30 KARAOKEA eta
MOZORROEN
DESFILEA
 Plaza Handian
 Antolatzailea:
 Atxutxiamaiaka B. T.

18:30 EUSKAL
IHAUTERIA
 Kalejira Mauxitxarekin
 eta Haritz Euskal Dantzari
 Taldearekin
 Irteera: Plaza Handitik

19:30-22:15 ZINEA
 "The Game"

22:00 TRAKETS
TALDEArekin
DANTZALDIA
 Plaza Handian

23:00 MAUXITXArekin
KALEJIRA

23:00 KONTZERTUA
 "Skunk" eta "Filobibliion
 Sound Sistem" DJ saioa
 Gaztetxean

24:00 MOZORRO
LEHIAKETA
 Plaza Handian
 Antolatzailea: Gurutze
 Gorriko Astialdi Taldea

22 ..igandea..

18:00 GELATXOrekin
DANTZALDIA
 Jubilatutuek
19:30-22:15 ZINEA
 "The Game"

23 ..astelehena..

19:30 HITZALDIA
 Gaia: Hartzarenak
 Hizlaria: Enrike Izagirre
 dantzaria
 Kultur Etxean
19:30-22:15 ZINEA
 "The Game"

20 ..ostirala..

19:00 GAZTE
ASANBLADAren
BILERA
 Gaztetxean
22:00 KONTZERTUA
 "KTULU", "Parasma" eta
 "Mutilated Soul"
 Sarrera: 500 pta.
 Gaztetxean

22:15 ZINE KLUBA
 "No va más"
 Antolatzailea: Ongarri
 Zine kluba

21
NE
A



Zuzendaria: David Fincher
Antzezleak: Michael Douglas, Sean Penn, Deborah Kara.

The Game

Alien eta Seven pelikulen egilea da D. Fincher. The Game pelikula, izenak dioen bezala, joko erakargarri bat planteiatzen du. Van Orton negozio gizon bat da eta joko arriskutsu baten parte hartzea onartzen du. Jokoa aurrea doan heinean, bere izakera aldatzen doala ikusiko du eta egoera kezkarri askori aurre egin beharko dio. Bukarera harrigarria dauka.

24

asteartea

16:30 MOZORROEN

ELKARTZEA

Plaza Handian

17:00 HAURRENTZAKO

IKUSKIZUNA

Azkona taldearekin

Plaza Handian

18:00 GELATXOrekin

DANTZALDIA eta

MOZORRO

LEHIAKETA

Jubilatu Etxean

18:30 MAUXITXArekin

KALEJIRA

19:30 SUZKO ZEZENA

Plaza Handian

26

osteguna

22:15 ZINE KLUBA

“Un heroe muy discreto”

27

ostirala

19:00 GAZTE

ASANBLADArekin

BILERA

Gaztetxean

22:15 ZINEA

“Titanic”

● Euskal mitologiari buruzko hitzaldia

Enrike Izagirre Barrueta-beña irakasle eibatarek eta Haritz Euskal Dantzari Taldeko kidea denak, euskal mitologiari buruzko hitzaldia emango du astelehenean, hilak 23. Iluntzeko 19:30ean Kultur Etxean izango den “Hartzarenak” izenburupean, hartza eta gizakiaren mitologia eta kontuei buruz berba egingo du.

● Mendi trabesia hilaren 21ean

Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta, Nafarroa ingurura mendi trabesia izango da domekan, hilak 21. Ibilaldia Arantza herritik irten eta Mendaur mendira bitartean izango da. Irteera goizeko 7:30ean izango da Plaza Handitik.

● “Tai Chi Chuan” teknikari buruzko bigarren saioa

Bihar eta etzi, hilak 21 eta 22, “Tai Chi Chuan” delako teknikari buruzko bigarren saioa emango du Brasildik etorritako Paulo Chagas maisuak. Teknika hau osasunari buruzko ezagutzak hobetu nahi duten pertsona guztientzako aproposa da. Edozein informazio jaso edo izena emateko Surya belardendara zuzendu (S. Frantzisko 23. Tel: 74 25 34).

● Ihauteri jaia Gartetxean

Gaur, hilak 20, eta bihar, hilak 21, Ihauterietako jai berezia izango da Gaztetxean “Faxismoaren kontra, kolpatu eta dantzatu” lemapean. Antolatzaileak Gazte Asanblada, Zazpiki Irratia eta “Filobiblion 10 urte Izorratzen” saio-ko arduraduna dira. Gaur, ostirala, gaueko 22:00etan hasita, hiru taldek kontzertua emango dute: “Ktulu” Bartzelonakoak, “Parasma” lekeitiarrak eta “Mutilated soul” elgoibartarrak. Sarrera 500 pta.koa izango da. Zapatuan, berriz, Iparraldeko “Skunk” taldearen musika berezia entzuteko aukera izango da. Gauean zehar, “Filobiblion Sond Sistem” DJ saioa eskainiko du Nesstro Fuente elgoibartarrak. Parranda goizaldera arte luzatuko da.

TRANDAK

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
21	Etxeberria (Santa ana kalean)	Etxeberria
22	Etxeberria (Santa ana kalean)	Etxeberria
23	Anduaga	Anduaga
24	Yudego	Yudego
25	Zabaleta	Zabaleta
26	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
27	Escala	Escala

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 16 38
ANDUAGA: Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

22 igandea Eizagirre

ONGARRI
zine kluba



Zuzendaria: J. Audiard
Antzezleak:

Un heroe muy discreto (Frantzia, 1996)

Valladolideko Jaialdian zilarrezko saria jaso zuen pelikula honek. Gerra ostean, naziek Frantziatik alde egiten duten garaian dago kokatuta istorioa. Protagonista hierarkia militarrean gorengo karguetara iristen saiatuko da eta horretarako zerbait asmatuko du: erresistentziako kide izandakoa dela esango du. Zine klasikoa eta berritzailea konbinatuz pelikula estimulantea izatea lortzen du zuzendariak.

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

◆ Neska gaztea behar da larunbat arratsaldean tabernako barran lan egiteko. ☎ 74 37 71

◆ 18-25 urte bitarteko neska behar da ostiral eta larunbatetan lan egiteko. ☎ 74 45 87

◆ ESKAERA ◆

◆ Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko neska eskaintzen da. ☎ 74 23 90

◆ Modista-diseinatzaile tituluduna eskaintzen da konponketak egiteko eta erropa josi eta diseinatzeko. Esperientziarekin. ☎ 74 21 44 (Ana Isabel)

◆ Barne Komertzio titulua duen neska euskalduna eskaintzen da administrazio lanak egiteko. ☎ 74 43 31 (Agurtzane)

◆ Eskopetero-armeroa eskaintzen da rebarbatze lanak, eskopetero, li-matzaile edo pulidore lanak egiteko ☎ 17 47 70

Garajeak

◆ Marradun garajea alokatzen da San Roke 5-7an. ☎ 74 33 39

◆ Garaje itxia saltzen da Pedro Migel Urruzuno kalean. ☎ 74 22 00 (Gaueko 21:00etatik aurrera)

◆ Garajea salgai Juan Mugerza kalean. ☎ 74 12 04

◆ Garaje marraduna alokatzen da Kalamua kalean, Urasandin. ☎ 74 13 82

◆ Garaje marraduna salgai Santa Ana 50 zenbakian. ☎ 74 27 89

Etxebizitzak

◆ Etxea alokatzen da Santa Ana kaleko 16 zenbakian. 2. pisua da. ☎ 74 37 14

◆ Buhardilla bat salgai P.M. Urruzuno kalean. Igogailua du. 2 logela, egongela, sukaldia, komuna eta ganbara. ☎ 74 34 96 (Ana, gauez).

◆ Jakan (Membrilleras) 2 geladun apartamentua salgai. Garajea eta trasteroa ditu. ☎ 74 20 31/ 20 32 15

◆ Bikote batek pisua alokatuko luke. ☎ 74 32 68

◆ Jantzitako etxea salgai Santa Ana kalean. Igogailua eta ganbara. 70 m2 inguru. ☎ 74 44 61

Bestelakoak

◆ Seilodun eraztuna galdu dut. I iniziala dauka grabatua. ☎ 74 27 85.

◆ Caritasek sukaldia, labea eta garbigailua emateko dauzka. ☎ 74 15 09 - 74 12 57

◆ Caritasek ume jaioberri batentzako kuna, bainera eta erropatxoak dauzka emateko. Bestetik, sukaldiarako banketak edo silak hartuko lituzke. ☎ 74 15 09 - 74 12 57

◆ Flauta berri bat galdu dut forro grisarekin. Aurkitu duenak **Udal-tzaingoan** laga dezala. Eskerrikas-ko.

◆ Karro-denda saltzen da. Egoera onean dago. ☎ 74 24 39

◆ Paparreko orratza galdu nuen duela 20 egun inguru. Perla bat dauka. ☎ 74 02 68

◆ Ume jaioberriarentzat denetik behar dut: kuma, kotxea, bainera... ☎ 74 44 61 (Ion, gaueko 22:00etatik aurrera). Ordaintzeko prest nago.

Salerosketak

◆ SALDU ◆

◆ Motorrean ibiltzeko bi kasko ditut salgai. Berri-berriak daude eta prezioaren laurdenean saltzen ditut. ☎ 74 37 16 (E. Mancebo)

◆ Kotxesila berria salgai. Plasti-kozko kapota dauka. ☎ 74 08 17

◆ Aukera. Samsung bideoa salgai, SV-60XK modeloa. 4 kabezal, funtzioak pantailan, Eurokonekto-rea, LP eta SP, Index bidezko bilaketa, autotracking digitala eta estero-rea. Urtebete baino gutxiago du. 30.000 pta. ☎ 74 02 09 (Alberto. 19:00etatik aurrera)

◆ Ordenadorerako mahaia saltzen da. Berria dago eta teklatuaren balda atera egin daiteke. ☎ 74 44 46 (goizez)

◆ Logela osoa eta salarako armarua saltzen dira. Merke. ☎ 74 36 83 (gauez)

◆ 62 metro karratuko lokala alokatzen edo saltzen da Kalamua 7an. ☎ 74 18 94/ 945 27 78 08

◆ Pasiararako Country Bike bizi-kleta saltzen da. Gutxi erabilia. Berde iluna. Prezio onean. ☎ 74 41 45 (gauez)

◆ Pentium 75, 16 MB RAM, 640 MB Disko gogorra, 3,5 disketera, CD ROM X4, impresora, arratoia, Windows 95 eta Office 97 programekin salgai. ☎ 74 19 21.

Partikularrak

◆ Alemaneko klase partikularrak ematen ditut. ☎ 74 00 98

◆ Kimika lizentziatua naiz eta fisika, kimika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 74 44 45 (Arrate)

◆ Latin eta literatura klaseak emateko irakaslea behar da. Curriculum-a bidali **Bergarako 245 postakutxara**.

◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut goizez. ☎ 75 50 35 (Imanol)

◆ Eskola aholkularitza partikularrak ematen dira 13 urtetik 20ra bitartekoentzat. ☎ 74 41 16/ 907 15 30 62

◆ Kitarra klase partikularrak (solfeo gabe) ematen dituen norbaiten bila nabil. ☎ 74 12 05 (gauez)

Agurrak

◆ Zorionak **Eider Eguren** hilaren 19an 21 urte beteko dituelako. Guraso eta ahizparen partez.

◆ Zorionak **Amaia Fernandez** otsailaren 11n 13 urte beteko zituelako. Asmatu al duzu zein den mutila? Zorionak DBHko guztien partez.

◆ Zorionak **Mikel Garateri** otsailaren 18an 2 urte beteko zituelako. Maite eta David-en partez.

◆ Aupa **super Itxaso**. Zorionak otsailaren 17an 10 urte beteko zituelako. Oso ondo pasatu merendola-pirindolan. Ane Odria eta Leire Garateren partez. Zorionak baita ere Ikasortzadar eta Ikasbeleren partez.

◆ Zorionak **Alazne Eskuderori** otsailaren 25ean urteak beteko dituelako. Nagore eta gurasoen partez. Zorionak baita ere Ikasortzadar eta Ikasbeleren partez.

◆ Zorionak **Iratxe Osorori** hilaren 18an 9 urte beteko zituelako. Ikastolako 3 B eta 3 A gelen partez.

◆ Zorionak **Yolanda Vegari** bihar, hilak 21, urteak beteko dituelako. Bere alaba Yolandaren partez.

◆ Zorionak **Sara Uzuri Perez** otsailaren 16an 10 urte beteko zituelako. Ikasortzadar eta Ikasbeleren partez.

◆ Zorionak **Loli Agirrezabalegiri** otsailaren 24an urteak beteko dituelako. Nagore eta Alazneren partez.

◆ Zorionak **Ane Uraini** hilaren 23an urteak beteko dituelako. Estibaliz eta Alazneren partez.

◆ Zorionak **Fridari** urteak bete dituelako. Leon-go lagunren partez. Musu haundi bat guraso eta anaiairen partez.

◆ Zorionak **ama Julia**! Bistan da zuk asmatu dozula bizitzari merezi beste etekin etaraten. 88 urte bete arren, bizipoza baino ez da Aldapako suntuoan ikusten. Trikitixa eta panderuagatik izan ete da? Segi berdin 100 urte harrapau arte. Familia osuan partetik.




◆ Zorionak **Ion Vicente Lopez** sari hilaren 23an 13 urte beteko dituelako. Guraso eta anaia Mikelen partez.

◆ Superzorionak **Ane Arakistaini** gaur, hilak 20, 3 urte bete dituelako. Naiara, Becky eta Jonatanen partez.



◆ Zorionak **Ane Uraini** astelehenean, hilak 23, 5 urte beteko dituelako. Lara eta amatxo eta aita-txoren partez.



◆ Zorionak **Borja** hilaren 22an 7 urte beteko dituzulako. Guraso, osaba-izeba eta anaia Ignacioren partez.



◆ Zorionak **Eider** hilaren 24an 3 urte beteko dituzulako. Zure anaia Ion eta gurasoen partez.



◆ Zorionak **Inigo Lopez** igandean, hilak 22, 6 urte beteko dituelako. Bere anaia Xabier eta gurasoen partez. Egun alai igaro dezazula.

dezazula.

Atraxxi Karaokea

IHAUTERIETAN hilak 21, larunbata,
PLAZA HANDIAN

Arratsaldeko 16:30etik 18:30etara

Izan zaitez abeslari egun batez!

ANTOLATZAILEA
Elgoibarko Izarrako



LAGUNTZAILEAK



Elgoibarko
Udala



Eusko
Jaurlaritzak

ez ahaztu
disfrazza
**MOZORROEN
DESFIEA** ere
egongo da-eta

OHARRA:
Play-backa
egiteko aukera
ere izango da.
Bakoitzak bere
musika-zinta ekarri
beharko du.

ZEZEN-BIDE

AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



**0% 10eko deskontua
Gazte Txartelarekin**

San Frantzisko, 43 – Tel: 74 27 20 – ELGOIBAR ■ Zezenbide,1-1 – Tel: 20 34 45 – EIBAR

PILARRAK IKASTETXEA



Hezkuntza eskaintza

DBH (ESO)

12-16 urte
B eredu INDARTUA

LEHEN HEZKUNTZA

6-12 urte
B eredu INDARTUA

HAUR HEZKUNTZA

2-6 urte
D eredua

ESKAITZEN DIZUEGU:

- **HEZKUNTZA ELKARTEA:** (Ikasle, Guraso eta Irakasleak) identifikatua eta partehartzailea.
- **GELA BEREZIAK:** Informatika, teknologia, liburutegia, laborategiak, polikiroldegia, psikomotrizitate gela...
- **EKINTZA OSAGARRIAK:** Kirolak, txapelketak, txangoak, antzerkiak,...
- **JANGELA:** Irakasleen ardurapean.
- **LAGUNTZA PSIKOPEDAGOGIKOA:** Bertako psikologo eta pedagogoarekin.
- **ZENTRO KONTZERTATUA:** 2 urtetik 16ra bitarteko irakaskuntza baimendua eta subentzionatua.

AURREMATRIKULA ZABALIK: otsailaren 26tik martxoaren 11ra
16:30etik 19:00etara bitartean

Urasandi kalea - Tel. 74 13 31 - 20870 ELGOIBAR